




→ **DISTANTZIA:** 17,6 KM


⌚ **AURREIKUSITAKO DENBORA:** 6 H 30 MIN

⬆️ **DESNIBELA:** 299 M

# GR® 321 ERREGE-BIDEA. 2. ETAPA IZABA – BELAGUAKO ATERPEA



 **HASIERA:**  
ISABA/IZABA

-  **OHARRA:**
- NA-137, NA-140
  - Belaguako lautadan, Belagua ibaia bi aldiz zeharkatu beharko dugu. Udan lehor egon ohi da, baina eurigaraian emari nabarmena izaten du.
  - Arrakogoitin oso ohikoa da oso azkar laino zerratua sortzea. Arropa beroa eta GPSa eraman behar da, urtaro guztietan.

Ibilbide eder hau Izabatik Arrakogoiti leporaino doa Belaguako ibarraren hondotik; handik Belaguako aterperaino joan daiteke GR® 12 bidezidorretik 3 kilometro eginda.

Ibilbidea Uztarrozeko errepidea zeharkatuz hasten da, iparralderantz joateko, errepide zati laburrak eta bidexka tartekatuz Asolaze kanpineraino. Handik ibilbidea baso polit batean barneratzen da eta, Belagua ibaia zeharkatu ondoren, Arrako baselizara heltzen da. Han azken iguera aldapatsua hasten da, Juan Pito bentaren ondotik igaro eta mugan dagoen Arrakogoiti lepora heltzen dena.